

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Ordain aldia irekitzea: landa, hiri, eta ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko zerga, 2020ko ekitaldia

Nik, Erika Letamendi Hurtado Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2020ko azaroaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2020ko ordainarazpen hauek:

- Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
- Ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko zerga.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko azaroaren 1etik abenduaren 8ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

- Kutxabanken bulegoak.
- Laboral Kutxaren bulegoak.
- Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento; (Nire ordainketa).

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2020ko urriaren 6a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO